

XII. ZEGAMA-AIZKORRI KILOMETRO BERTIKALA ARAUDIA

1. Data eta lekua	XII. Zegama-Aizkorri KB 2026ko maiatzaren 15ean ospatuko da , irteera arratsaldeko 16:00-etan izango delarik.
2. Ibilbidea	Proba, Zegamako trenaren apeaderoa, baina km 1 lehenago dagoen bidegurutzetik, irten, eta Arriaundi gainera igoko da. 5.200 metroko luzera du eta 1015 metroko desnibel positiboa izango du.
3. Partehartzea	18 urtetik gorako atleta, mendizale eta kirolari guztiek dute proban parte hartzeko aukera arautegi honetan adierazitako guztia onartu eta zehaztutako baldintza guztiak betetzen badituzte behintzat. Gehienez, 250 lagun onartuko dira .
4. Mailak	Gizonezkoen maila Absolutua 18 urtetatik gorakoak. (proba ospatzen den egunean duten adina) Sub23, 23 urtez azpikoak (urtea hartuko da kontutan) Emakumezkoen maila: Absolutua 18 urtetatik gorakoak. (proba ospatzen den egunean duten adina) Sub23, 23 urtez azpikoak (urtea hartuko da kontutan)
5. Izen-ematea eta zozketa	Gehienez 250 korrikalarik parte hartu ahal izango dute. Aurre-inskripzioa urtarilaren 26tik otsailaren 6ra izango da eta 1€ko kostua izango du. Maila honetako frogak dakartzaten hainbat konpromiso kontuan izanik, antolakuntzak 50 dortsal erreserbatuko ditu konpromiso horiei erantzuteko. Bestalde, azken edizioan denborarik onenak lortu dituzten korrikalarien presentzia bermatzeko, antolakuntzak beste 50 dortsal erreserbatuko ditu korrikalari hauentzat. Geratzen diren dortsalak (150) zozketatu egingo dira otsailaren 20an. Aurrez aipatu bezala, dortsala lortzen duen korrikalaria ez da zozketa prozesuan sartuko. Lehenengo aldiz zozketan parte hartzen duten korrikalariak, zozketarako zenbaki bakar bat izango dute. Aurreko urteetan zozketan parte hartu eta dortsalik

XII. ZEGAMA-AIZKORRI KILOMETRO BERTIKALA ARAUDIA

	suertatu ez zaion korrikalariari, zenbaki bat gehiago gehituko zaie, zozketan parte hartu eta dortsalik izan ez duten urte bakoitzeko. Korrikalariren bati dortsala suertatu bazaio aurreko urteren batean, hurrengo urteetako zozketak bakarrik hartuko dira kontutan.
6. Prezioa	Kuota 30€koa izango da. Zenbateko honek zera bermatzen dute: proban parte hartzeko eskubidea, erantzukizun zibileko aseguru eta ezbeharretakoa, antolakuntzak parte-hartzaileentzako atondutako zerbitzuak erabiltzeko eskubidea, oroigarri moduko elastikoa eta antolakuntzak probarako lor ditzakeen sarien zozketan parte hartzeko aukera.
7. Seinaleztapena	Ibilbidea behar bezala seinaleztatuta egongo da , kartel adierazleekin eta balizaje zintekin.
8. Hornidura	Postu bat atonduko da helmugakoaz gain.
9. Igarotze denborak	Zegamako Plazatik Arriaundi bitarteko ibilbidea beroketa gisa (neutralizatua) dela ulertuko da. Korrikalari bakoitzak Zegamako Plazatik Arriaundira iristeko gehienez 25 minutuko denbora izango du. Ordua baino lehenago irtenez gero, irteerako unetik hartuko zaio denbora. Aldiz, irteera ezarritako epearen ondoren eginez gero, irteera zuen ordutik kontuan hartuko zaio denbora. Bestalde, Arriaunditik Itzubira joateko gehienez 40 minutu izango ditu korrikalariak, denbora hori baino gehiago pasatzen duen korrikalariari dortsala kenduko zaio.
10. Sariak	Gizonezko Absolutoak: 1. Txapela, Garaikurra eta 500€ eskudirutan 2. Garaikurra eta 300€ eskudirutan. 3. Garaikurra eta 150€ Emakumezko Absolutoak: 1. Txapela, Garaikurra eta 500€ eskudirutan. 2. Garaikurra eta 300€ko eskudirutan

XII. ZEGAMA-AIZKORRI KILOMETRO BERTIKALA ARAUDIA

	3. Garaikurra eta 150€ eskudirutan Gizonezko Sub23: 1. Garaikurra. Emakumezko Sub23: 1. Garaikurra.
11. Dortsalen banaketa	Dorsalak udaletxeko arkupeetan banatuko dira, 2026ko maiatzaren 15ean, eguerdiko 13etatik 16rak bitartean. Dortsala soilik jabeak jaso ahal izango du bere identifikazioa erakutsiz.
12. Ingurumena	Lasterketa, bere zatirik handiengan, edertasun natural handiko parajeetatik igarotzen da eta, hau horrela, ingurunea ahal beste zaintzeko eta zaborrak kontrol-guneetatik kanpora ez botatzeko eskatuko zaie partehartzaile guztiei. Oinarri-oinarrizko arau hau betetzen ez duen korrikalari oro probatik kanpora utzi ahal izango da.
13. Osasun-Laguntza	Antolakuntzak sorospen- eta salbamendu-zerbitzuak atonduko ditu. Era berean masaje-zerbitzuak, dutxak, komuna eta aparteko beharren bat duten edota ondoezak jota iristen diren kirolariei aurreneko laguntza emango dieten medikuak ere izango dira helmugan.
14. Segurtasuna	Antolakuntzak, aurretik Lasterketako Batzordearekin hala adostuz gero, proba ordezeko ibilbidetik desbideratzeko, beharrezkotzat jotzen dituen aldaketak egiteko eta, eguraldiak hala eskatzen badu, KB-a bertan behera uzteko eskubide osoa izango du.
15. Laguntza ezbeharretan	Parte-hartzaileek betekizun izango dute istripuren bat izan duen edonor laguntzea eta kontrol-guneetan edozein ezbeharren berri ematea.
16. Erantzunkizuna	Antolakuntzak erantzukizun oro ukatuko du istripuren bat gertatuz gero edota zabarkeriaz jokatzenean bada; eta baita parte-hartzaileen objektu pertsonalei dagokienean ere, xede

XII. ZEGAMA-AIZKORRI KILOMETRO BERTIKALA **ARAUDIA**

	horrekin kontsigna-zerbitzu bat izango baita dortsalak jasoko diren tokian bertan. Horrela bada, parte-hartzaileek izango dute euren buruari edota hirugarren pertsoneri eragindako kalte ororen erantzukizuna.
17. Derrigorrezko materiala	Parte hartzaileek derrigorrezkoa dute lasterketak irauten duen denboran zira, hornidura likidorako edalontzia eta manta termikoa eramatea.
18. EMF-ren araudia	EMF -ren KB-etako araudia bete beharko da froga honetan.